

EUSKAL PRESOAK. Herrietako baraualdiez gain, HBko mahaikide eta hautetsiek Iruñean egingo dute berena

Euskal Herri osoan baraualdiak hasi dira, euskal presoen eskubideen alde

Hainbat baraualdi egingo dira herrietan hilaren 30a arte, AABek eta Koordinaketak deituta



ANGELA MEJIAS

Apezpikuaren baimenik gabe hasi zuten atzo Baionako katedraleko baraualdia, apezpikuak Polizia bidaltzearekin mehatxatu zituen arren.

Celine Mounole | BAIONA

Koordinaketak eta Amnistiaren Aldeko Batzordeek egindako deialdiari jarraituz, atzo hainbat baraualdi hasi zituzten Euskal Herriko herri eta auzoetan. Abenduaren 26tik 30era iraganen dira elkartasun baraualdiak eta euskal presoek eskubideak aldarrikatzea dute helburu.

Hego Euskal Herrian hainbat herritan egingo dira baraualdiak, eta Iparraldean, berriaz, Baionan egingo da ekimen nagusia, baina Donibane Lohizun-ene ere egingo dute. Atzo sei lagun bildu ziren Baionako katedralean, Koordinaketak eta AABek Eguberrietako kanpainaren kariatara zabaldu deiari jarraituz. Gose grebalaria apezpikuaren baimena gabe sartu ziren katedralean, eta bertan egiteko asmoa dute, nahiz eta apezak Polizia deituko zuelako mehatxua egin zien hastapen batean. Iaz ez zieten utzi San Andres elizan sartzen eta behartuak izan ziren oihalek etxe bat muntatzera.

Aurten ere, elkartasuna erakutsi nahi izan diete Eguberriak familiarengandik urrun iragaten dituzten erbesteratuei eta euskal presoek. «Ehunka haurrek egingo dute Eguberria beren aita, ama edo ahaideekin ospatu», salatu du Koordinaketak. Iaz,

garai honetan egin ziren gose grebek 800 bat pertsona bildu zituzten Baionan eta Arrasaten.

Hainbat herritan

Hego Euskal Herriari dagokionez orain arte bildu diren datuen arabera, 40tik gora herri eta auzotan egingo dira baraualdiak. Gipuzkoan: Arrasaten, Bergaran, Antzuolan, Azkoitia, Zarautzen, Andoain, Oiartzunen, Hondarribian, Ordizian, Zaldibian, Ataunen, Zumarragan, Urretxun, Usurbilen, Errenterian eta Donostiako Grosen, Altzan, Antiguan, Alde Zaharrean eta Amara Berrin. Bizkaian: Arrigorriaga, Muskiz, Zorroza, Alonsotegi, Elorrio, Berango, Algorta, Leioa, Sopela, Erromo, Ondarroa, Lekeitio, Sestao eta Bilboko Alde Zaharrean eta Santutxu eta Indautxu auzoetan.

Nafarroan Bakaiku eta Iruñean egingo dituzte baraualdiak, baina hilaren 29an hasi eta 30ean amaitzeko. Araban, berriaz, Legutian bi txanda egingo dituzte (lehena 22tik 24ra egin zuten eta bigarrena 29tik 31ra egingo dute); Abetxukon ere 22tik 24ra egin zuten; Aramaion 25ean hasi eta 30ean amaituko dute; Amurion 28an hasiko dute, 30a arte; Gasteizen, 29tik 31ra; eta Zigoitian urtarrilaren 5etik 7ra.



JOXE LACALLE

HBko mahaikide eta hautetsiak, atzo, baraualdia hasterakoan.

HBko mahaikide eta hautetsiek ere baraualdia hasi dute presoek alde

Irene Arrizurieta | IRUÑEA

Julen Agirre, Marije Apodaka, Ibon Arburu, Fernando Barrena, Felix Puyo eta Shanti Kiroga EHko kideek, koalizioko beste batzuekin batera, baraualdia hasi zuten atzo, Iruñeko Alde Zaharreko Arrano elkartean. Bi aldarrikapen egin nahi dituzte gose grebarekin: batetik, euskal presoek Euskal Herriratzeko exijitu nahi dute eta, bestetik, Euskal He-

rriak bizi duen prozesu politikoan «presoek parte hartzeko eta protagonista izateko duten eskubidea».

Heldu den larunbata arte iraunen du baraualdiak. Egun horretan, 12:00etan, martxat egingo dute, Arranotik Iruñeko espetxera. Biharamunen, hilak 31, Amnistiaren Aldeko Batzordeek autobus geltokitik kartzelara joateko antolatuta duten elkarretaratzera ere joanen dira EHko kideak.

Koldo Elizetxea preso ospitalean da, Crohn gaitzak okerrera eginda

Garbiñe Olaiola | HONDARRIBIA

Koldo Elizetxea preso hondarribiarra Arantzazuko Amaren erietxean dago, Crohn gaitzak okerrera egin ondoren. Herenegun ospitaleratu zuten, sabeleko min handia eta sukarra altuarekin. Atzo sendagileek froga batzuk egin zituzten eta ostirala arte han egon beharko du guztiak amaitu arte.

Senideek presoak ikusi ahal izan zuten. «Goiz guztian berarekin izan ginen. Zaintzako unitatean dago, oso ondo atendituta. Hala ere, ospitale-eraman zuten», adierazi zuten bere senideek.

Elizetxeak Crohn gaitxotasun sendaezina du. Gaitza espetxean zegoela antzeman zioten. Elizetxea 1998an atxilotu zuten eta zazpi hilabetez Valdemoro eta Soto del Realeko kartzelatan egon zen. Urte hartan aske utzi zuten eta 2000ko urriaren 11 arte kalean izan da. Espetxean zegoela bi ebakuntza egin zituzten. Lehenengoa apendizitisa zelakoan egin zioten, baina oinazeak jarraitzen zuten, handik bi hilabetera bigarrena egin zioten eta este zati bat kendu zioten. Gaitz hori esteetako infekzioa da eta elikadura zaindu eta bizitza lasaia eraman behar da.

Hondarribiko Amnistiaren Aldeko Batzordeek esan zuten, «espetxeratu zutenetik sabeleko minak eta sukar oso altuak jasaten ari da». Urko Labeagaren kasua ere salatu zuten AABek. Labeagari eskubiko eskuan ebakuntza egin behar diote.

Manifestazioa egingo da Bidasoaldean presoek alde

Presoen aldeko manifestazioa egingo da larunbatean Hondarribian, Hendaian eta Irunen. 18:30etan hasiko dira Hendaia Udaletxetik, Hondarribiko Amutetik eta Irungo Urdanibia plazatik. Hirurak batu eta Irunen amaituko da.